

# Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, martxan da berriro Zabal egitasmoa

Shanghaiko Biurtekoko komisarioetako bat den Marina Otero Verzier hiru egunez egongo da Euskal Herrian, Etxepare Institutuan gonbidatuta, «bertako proiektu, eragile, eredu eta praktika artistikoak» zuzenean ezagutu ahal izateko

---

Igandea, 14 azaroa 2021, 14:39

---

Etxepare Euskal Institutuak 2019. urtean martxan jarri zuen Zabal egitasmoa, «sortzaileen, profesionalen, eragileen eta tokiko erakundeen arteko epe luzeko trukea eta lankidetzaren sustatzen eta errazten duten nazioarteko sareak garatzea» helburua duena. Horretarako, «nazioarteko komisario, arte kritikari eta museo zuzendariak gonbidatzen ditu Institutuak Euskal Herrira, harreman zuzenaren bitartez euskal artistekin elkarlana sustatzeko».

2019ko azaroan etorri zen lehen gonbidatua: Ruth Estévez São Pauloko bienaleko komisarioa. 2020ko otsailean ruangrupa kolektiboko kideak izan ziren, dokumenta 15eko zuzendari artistikoak. Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, abian da berriro Etxepare Institutuak tokiko eta nazioarteko arte garaikidearen inguruko proiektuen kudeaketan lan egiten duen Artingeniumen laguntzarekin garatzen duen ekimena.

Shanghaiko Biurtekoko komisarioetako bat den Marina Otero Verzierren bisitarekin emango zaio jarraipena egitasmoari. Hamairugarren ediziora iritsi da aurten Asian une honetan arte garaikidearen inguruan aurki daitekeen hitzordu nagusia, Shanghai Art Biennale delakoak. Txinako Biurteko finkatuena da, eta «mundu osoko artista, kuradore, idazle eta artezaleei beren esperientziei, lanei eta inspirazioei buruzko ideiak trukatzeko eta nazioarteko elkarriketak garatzeko gune bat eskaintzen die», ekialdearen eta mendebaldearen arteko mugak gaindituz.

Batik bat Estatu Batuetan lan egiten duen eta nazioartean itzal handia duen Andrés Jaque izendatu zuten komisario 2019an, eta harrezkerotik lau kidez osatutako talde batekin ari da lanean. Talde horretako kide da hain zuzen Marina Otero Verzier, arkitekto doktorea da, Het Nieuwe Instituut-eko (Arkitektura, Diseinu eta Kultura Digitalaren Holandako Museo Nazionaleko, Rotterdamen, eta Design Masters Sozialaren zuzendaria Design Academy Eindhoven-en. Irakaslea ere bada, eta komisariotzan proiektu garrantzitsuak burututakoa.

## Lehen fruituak

Hiru egunez, astelehenetik asteazkenera, Euskal Herrian izango da eta «euskal arte garaikidearen testuingurua ezagutuko du Etxepare Euskal Institutuaren eskutik». Lehendik ere bertan izandako Otero Verzierrek ('Hiria eta bestelako politikak' zikloko mahai inguru batean parte hartu zuen orain dute batzuk Tabakalera), bertatik bertara ezagutu ahal izango ditu Donostian, Gasteizen eta Bilbon «bertako proiektu, eragile, eredu eta praktika artistikoak».

Etxepare Institutuak ohar baten bidez adierazi duenez, «euskal testuinguruko hainbat artista eta eragilerekin egoteko aukera izango du, eta bertako museo eta sorkuntza zentro batzuk bisitatuko ditu. Bere egonaldiaren baitan, Marina Oterok aurkezpen ireki bat egingo du, sortzaile guztiei eta entzulego orokorrari eskainia. Hitzaldia azaroaren 16an, asteartea, izango da, 18:00etan, Gasteizko Artium Museoan. Shanghaiko Biurtekoko 'Bodies of Water' kontzeptua eta pandemia garaian, proiektua garatu zenean, sortu ziren lan-baldintza berriak izango ditut hizpide. Artista batzuen lanetan ere jarriko du arreta, Itziar Okaritzen lana barne, biurtekoaren funtsezko zatia izan baitzen.

Egitasmoak eman ditu bere lehen fruituak. Izan ere, consonni Bilboko argitaletxe eta kultur espazio independentea 2022ko ekainean Kassel-en (Alemania) inauguratuko den nazioarteko documenta 15 erakusketa entzutetsuetan parte hartzeko aukeratua izan da.